

# PRUGATORIOKO ARIMEN OROIZKETA

---

**U**RTERO, Done guzien jai ondoren, Purgatorioko arimen oroizketa egiten da, egipen onak, otoitz samurrak, eleizkari aundiak iltakoai donkituaz.

Oitura maitati au ez da gure egunetan sortua, antzin antzinakoa baizik.

Esan liteke kristautasunakin batian sortu zala oitura atsegingarri au, ta era batera edo bestera, Apostoluen garai urruneko ura ezker, kristaben artian beti gorde izan dala ildakoen ganako kupitasun samurra, lagundurik al guztiyan egipen on eta otoi sutsuakin.

Orrela adierazitzen digute Tertuliano ta Nazianzeno'tar Gregorio doneak, aitortuaz Eleizak ontzat artzen zituala ildakoen arimen alde egiten ziran otoi guztiak.

Ala ere etzan ordia orain bezela, egun jakiñik, egun izendaturik, Purgatorioko arimen oroizketa egiteko.

Geroztikakoa da egun jakin ori ipintzia. Lenengo, praile-echetan jarri zan Azaroa'ren 2.<sup>an</sup> egiten dan arimen oroizketa, gero Aita Donearen baimenarekin eleiz guzietan, kristau erri guzietan egiten da.

Bañan, biar bada, erri gutxi izango dira gure Euskalerra laztan onetan bezin zintzoki oroizketa ori egiten diranak.

Badira erriak, beste edozein jai nabarmen balitz bezela iltegiatara juaten diranak jan eran ta zalaparta bizian ibiltzera. Gure artera ere oitura kaltegarri oietakoak irrichi dira ta uri-batzarrak gogor debekatu bearrian arkitu dira, oitura lotsagarri oiekgure artean indartu ez ditezen Izan ere, ez du orrek euskal oituren itxura pitin bat ere.

Euskaldunak orrelako egunetan otoi egiten du gogoz, eta argizaia erretzen du ildako aide ta adizkiden arimen alde.

Ori egiten du euskaldunak, oju ta zalaparta gutxi errosario asko,

Gai onetan gogoratzen naiz gure anai lapurditarren oitura batez.

Erri maitagarri aietan Azaroa'ren lenengo eguneko arratsaldean asten dira Eleizetan otoiak ildakoen arimak zeruratzeko asmoan.

Erriko biztanleik geienak, amkumeak batibat, biltzen dira Eleizan beren otoi gogotsuenak ildakoen alde egitera.

Era berean errian diran mutil koşkor guziak biltzen dira toki berean eta emakumetara alderatzen dira.

Batek agintzen diote errosario bat bere gurasoen arimagaz, besteak seme, alaba edo senidegaz; eta orrala batzuek emen, besteak an, alde guzietan erasotzen diote mutil koşkorak errosarioak esateari.

Emakumeak sos batzuek ematen dizkate, ta mutil koşkorak batian amaitzian bestera juaten dira, ta batian eta bestian errosario esaten igarotzen dute arratzalde guztia.

Makiñabat errosario esaten dituzte mutil koşkor aiek arratzalde arretan. Bai azkar ere. Esan genezake aita ta semea esan ordurako amaitzen dutela errosarioa.

Nolanai dalare oitura txarra ez da.

Gure artean ezagutzen dana ez da, bañan ezagututziarekin batere galduko ez genukena bai.

Oiturak, onak izan ezkeru, artu litezke, batibat gure anaienak diranian; beste, asieran aitatu ditugun oitura txar aiek, iñolare artu ezin genezaizkikenak dira. Ayek, diran tokikuak dirala txarrak dira ta, ez gureztat eta ez besterentzat ezin naiko ditugu.

Ez dira orrelakoak izan beñere gai onetan Euskalerriko oiturak.

Gure zenbaki onetako lenengo orrian azaldu degun idantzezkiak adiarazitzen digu argi asko zer eta nola Purgatorioko arimen oroizketa egiten dan Euskalerrian.

Antzelari trebea da lan ori egin duena, ta ageri diran bi emakume oien arpegi, jantzi, ta azaltzeko itxuran garbiro ikusten da euskal oitura jatorra,

Len esan degun bezela arimen oroizketan euskaldunak otoi egiten dute gogoz eta argizaia erretzen dute oparo.

Ori bera azaltzen da idantzezkiak.

Eskuetan damazkiten liburu ta errosarioak adierazten dute otoi egiteko asmoa.

Bildumenak berriz argizai erretzeko ustea.

Eta ori egiten da Eleizan, ta ori egiten da etxean; eta iltegitara juaten bada orretara bakar bakarrik juaten da.

Orrela izan da beti euskal oitura; iltegiara jostaketara joatea gauza berria da, ez da oitura zarra baña bai txarra.

Ta guk ez degu oitura txarren biarrrik, oitura zarrak bai biar ditugu ta gogoz gorde ta iraun azi bearrian arkitzen gera, Euskalerrria beti izan dan bezela aurrera ere izatia nai badegu.

Orretan alegiñak egin biar ditugu, lengo oitura zar leñargiak gogoz gordetzen.

Euskaldunen izena bakarrik ez da aski, izana biar degu izena baño lenago ta gañerako guzien gañetik.

Eta euskaldunen izena lengo oitura zar maitagarrietan dago.

Gorde ditzagun bada gogo biziakin.

M. UGALDE

---

---